

**2013KO EKAINAREN 24AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita laua.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko ekainaren 17ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN USTIAPENA ETA ANTZOKI HORRETARAKO 3D/2D SISTEMAREKIN PROIEKZIO DIGITALERAKO EKIPAMENDUAREN HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEA: baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Ezagutzera eman da, Usurbe antzokia eta erakusketa-aretoa kudeatzea kontratatzeko eta Antzoki horretarako 3D/2D sistemarekin proiektio digitalerako ekipamenduaren hornidura eta instalazioa egiteko, baldintza plegua.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baldintza plegua onartzeko eta deialdia egiteko proposamena jaso dugu eta zalantzak sortzen zaizkigu. Hain zuzen ere jakin nahi duguna da lizitazio prezio horretan, langile baten kalte-ordaina aurreikusten den ala ez. Orain dela urte bete, lizitazio prezioa 69.000 €koa zen. Orain proposatzen denarekiko %60ko igoera suposatzen du. Aurrekontuan, 40.000 € daude aurreikusiak digitalizaziorako eta bidali zaizkigun datuen arabera, aldiz, aurtengo urtean 25.000 € erabiliko dira.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Udal Gobernuari zuzenean kudeatzea gehiago gustatuko litzaioke, baina RAJOYren Dekretuak ez digu uzten. Lehengo urteko lizitazio prezioa, 84.000 €koa zen. Orain 115.000 €tan finkatzen da, 90.000 (ustiapena) + 25.000 (digitalizazioa), baina lau urteetan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Proposatzen den baldintza pleguarekin, enpresa bati ematen zaio kudeaketa eta digitalizazioa egitea, baina nola baloratu behar du Kontratazio Mahaiak, digitalizaziorako zein sistema erabili behar den ere ez dakigunean?. Zer da baloratu behar dena?. 2D eta 3D sistemaren arteko diferentzia prezioaren ikuspuntutik begiratuta handia da eta nik dakidala 3D sistema, alde batera geratzen ari da. Nire ustetan garbi izan behar dugu zer nahi dugun eta ez enpresaren esku utzi. Informazioa jaso ondoren, zehatz mehatz kontratatzea nahi duguna, beste aukera bat izango litzateke, hau da, alde batetik kudeaketa kontratatu eta beste alde batetik digitalizazioaren hornidura eta instalakuntza, zeren eta proaktibotasuna aipatzen denean ere, ez dakit oso ondo zer esan nahi den. Zer gertatzen da proaktibotasunaren alde enpresak ezer ez badu egiten?.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Baldintza plegua irakurtzen baduzu hor adierazten dira galdetu dituzun zehaztasun guztiak. Proaktibotasuna , Interneten honela definitzen da: *“es una actitud en la que el sujeto u organización asume el pleno control de su conducta siguiendo las instrucciones de otro "superior", lo que implica la toma de iniciativa en el desarrollo de acciones creativas y audaces para generar mejoras, haciendo prevalecer la libertad de elección sobre las circunstancias del contexto a criterio del superior. La proactividad significa tomar la proiniciativa, y asumir la responsabilidad de hacer que las cosas sucedan; decidir en cada momento lo que queremos hacer y cómo lo vamos a hacer.”*

Gertatutakoari buruz, historia pixka bat egin nahi dut. 2012ko abenduaren 20an egindako Udalbatza Osoan, zinegotzi karguaren jabetza hartu nuen. Pleno horretan bertan, Josi Insausti jaunak ezagutzera eman zuen, Usurbe zinea kudeatzen zuen enpresak, langileak aurkeztutako bidegabeko kaleratze demandaren aurrean, adiskidetze-ekitaldia burutu zela.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Langile horri, enpresak ez zion kontratua berritu.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Gertatzen dena da, nahiz eta bi hilabeteetan zinea itxita egon eta lanik ez egin, langile horrek %100eko kontratua duela.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) esan du langileria subrogatu behar denean, dagoen egoeran subrogatu behar dela eta pertsona honek ez zuela, aldizkako kontratu finkorik.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Lan mota horiek, aldizkako kontratu finkoak izaten dira. Lana dagoen hilabeteetan lana egiten da eta aldiz

antzokia itxita dagoen bi hilabeteetan langabezian gelditzen dira, baina hilabete hauek langabezia kobratzeko konputatzen dute. Enpresa, subrogazio betebeharrarekin aurkitu zen, baina arazo hau lehengo legealditik dator. Ansoalde, aurreko kudeatzailea, aspalditik kontraturik gabe zegoen eta Udalak ez zekien kudeatze gastuak zenbatekoak ziren, hilabete batzuetan kopuru bat fakturatzeko zuen eta beste batzuetan beste bat. Lehengo urtean nahiko galduta ibili ziren lizitazio prezioa ateratzeko. Lehendabizi, 69.000,00 €tan finkatu zen eta lehiaketa hutsik geratu zenean, 84.000,00 €ra igo beharra izan zen, beste lehiaketa bat egiteko.

Momentu honetan zinea kudeatzen duen enpresarekin, hiru hilabetean behin biltzen gara. Otsailean esan ziguten, kontratua bertan behera utzi behar zutela, bi arrazoi hauengatik: ekonomikoak (aurten, beraien esanetan, 6.000 € besterik ez dute irabaziko) eta langile batek sortzen dituen arazoak, baina ez bakarrik enpresarekin baizik eta baita ere bere lankideekin. Horren aurrean, langilearekin bildu ginen, kultura eta euskarako teknikaria eta ni neu eta langileak esan zigun, ez dela egiten ari berari dagokion lana, muntaia lanetan ari dela eta enpresak alde batera uzten diola.

Zer egin honen aurrean?. Aurreko legealdiko gobernuan egon den jendearekin egoten saiatzen naiz. Aitor Aldasorori mezua bidaltzen diot eta arratsaldeko seietan biltzea adosten dugu. Ordu horretan, Aitor Aldasororen partetik mezua jasotzen dut esanez Eva Diezen zain zegoela eta iristerakoan biak bilerara azalduko zirela. Antolakuntza-gelan biltzen gara, baina zer bilera mota zen hura?. Gaia azaldu nien, baina gauza gehiagoetaz hitz egin genuen. Nire asmoa ez zen BILDU-EAJren arteko bilera izatea. Aitor Aldasorok eskatu zidan idatziz bidaltzeko proposamena. Ezinezkoa izan zen zerbait adostea. Guk zenbakiak atera ditugu eta abokatuekin ere bildu gara. Alfonsori ere, Aitor Larburuk uste dut zerbait komentatu ziola.

Gauzak horrela, HIRUTEK enpresarekin hitz egiten da eta lortzen dugu enpresak kontratua burutzeko hitza ematea. Orain, baldintza plegu berriak prestatu ditugu. Agian, aurrekontuan aurreikusita dauden 40.000 €rekin ez da iristen digitalizazioa egiteko, baina kreditu aldaketa egin gabe proposatzen den moduan eginda, kontratuan amaitzean Udala izango da instalatuko den sistemarekin geldituko dena.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gertatu daiteke, urtea pasa ondoren kontratistak zerbitzua emateari uztea. Azkenean, Udala denarekin geldituko da eta aurre egin beharrean egongo da.”

Alkatea jaunak (BILDU): “zerbitzu hau burutzeko modu ezberdinak daude. Trafikoarekin bezala egin daitekeena da, enpresa bat hartu eta berari esan jarraipen guztia egiteko edo bestela planteatzen den eran. Nik uste dut gaiari hamaika buelta eman zaiola eta landuta dagoela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ez dut hori zalantzan jartzen.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Zinearekin arazo bat zegoen eta guk buelta ematea lortu dugu. Jakiteko egun zinean dagoen tresneria, baldintza pleguari inbentarioa erantsiko zaio eta momentu puntual batetan zerbait behar bada, kontratistak jarri beharko du.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Elgoibar-en zinea kudeatzea, 208.000 € kostatu behar zaie. Guri, aldiz, askoz gehiago.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): Bai, baina jakin egin beharko litzateke pertsonalaren kostua zenbatekoa den. Gutxiago kostatu behar duela esateko, datu gehiago jakin behar dira. Zuek aipatzen duzuen, prentsarako titular polita izan daiteke, baina prezioa ezin da besterik gabe erkatu. Guk zama handia eta garrantzitsuzko motxila dugu. Guk ez dugu inor kalera bota nahi. Enpresa, langilearekin adostasun batera iristen bada, enpresaren kontua izango da. Hori, hemen eta kiroldegian MAS QUATROrekin ere pasatu daiteke. Guri gustatuko litzaigukeena da kudeaketa zuzena egitea, lgartzan egin dugun bezala, gure politika delako, baina RAJOYren Dekretuak ez digu uzten.”

Idazkariak, Aitor Aldasoro jaunak horrela eskatuta eta Alkateak baimena emanda, hitza hartu du eta digitalizazioa eta proaktibotasunari buruz ondorengoa adierazi du:

Digitalizazioa: ez da zehaztu Udalak zein sistema instalatu nahi duen, horretarako aholkularitza behar delako, eta nahiz eta jakin bata eta bestearen arteko diferentzietako bat, 3D sisteman betaurrekoak behar direla eta hauek garestiak direla, badirudi beste berezitasun batzuk ere badaudela. Horregatik, batzordean egindako ekarpenen ondorioz, kontratuaren helburuan digitalizazioa aipatzen denean, aholkularitza kendu da, betebehar eta esleipen-irizpideetan azaltzen zelako (exijitzen dena ezin da baloratu eta alderantziz). Zein sistema jarri, oraindik Udalak ez daki, nahi duena da honi buruz aholkularitza jaso eta gero erabaki. Hau da, hain zuzen ere arrazoia, 4. esleipen irizpidean digitalizazioa baloratzeko ondorengoa aipatzearena:

“Esleipendunaren aholkularitza, 3D/2D sistemek eskaintzen duten aukera desberdinen ingurukoa eta horiek gaur egungo zine-produkzioan duten egokitzapena, berak duen eskarmentuan eta digitalizazioak indarrean jarri zenetik gaur egunerarte izandako bilakaeran oinarrituta, Udalak erabaki dezan zein sistema ezarri.”

Laguntza teknikoa baloratzearekin neurtu nahi dena, intzidentzi baten aurrean enpresak nola erantzungo duen jakin, denbora eta mantenu aldetik.

Proaktibotasuna: jendea erakartzean datza, baina hori baldintza pleguaren IV. Klausulan aipatzen diren eta kontratistaren betebeharrerako bat

besterik ez da. Bete ezean, zigorrak jarri daitezke eta horiek ere aurreikusi dira.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Kezka sortu zait. Badirudi mugimendu honen guztiaren jatorria, enpresak langilearekin duen arazoa dela eta hori izan daiteke kopurua gehitzearen arrazoa eta orain digitalizazio inbertsioarekin justifikatzen dena. Hemen esan da, enpresa horrek aurten 6.000 €ko onura besterik ez duela izan, baina jakin egin beharko litzateke hori den benetako onura. Nik dakidana da, subrogatzeko obligazioa dagoela eta izan dugun eskarmentuaren ondorioz, bermatu egin beharko litzatekeela hiru langile horien jarraipena, amarrurik gabe.”

Garbiñe Zurutuza andreak: “Esan genezake kontratua nahiko erakargarria dela.”

M^a Mar Celaya andreak esan du jakin ezina dela orain zinea kudeatzen duen enpresa lizitazioa berrira aurkeztuko den.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Kontratua amaitu egiten da eta berritza tokatzen da. Lizitazio berria hain erakargarria bada, agian enpresa bat baino gehiago aurkeztuko da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beste gauza bat ulertzen ez dudana da, kontratuaren prezioa zergatik bakarrik 5.000 € jaitsi daitekeen. Lehen esan dudana bezala, guri beste herri batzuei baino garestiago ateratzen zaigu.”

Idazkariak esan du, obrak kontratatzerakoan, Legeak berak ezartzen duela portzentaia, “proportzionatua ez izatearen eskaintza” kontsiderazioa eman ahal izateko, naiz eta horrek ez suposatu eskaintza automatikoki baztertzea. Aldiz, zerbitzuak kontratatzeke, legeak ez du horrelakorik aipatzen. Egin behar den inbertsioa garrantzizkoa denez eta kontratua osotasunean eta behar den moduan betetzea bermatzeko proposatzen da, prezioa aipatutako kopurua baino gehiago jaisten bada punturik ez ematea. Badirudi, orain zinea kudeatzen ari den baino enpresa gehiagok azaldu dutela interesa lizitazioan parte hartzeko, besteak beste, bere garaian Udalaren aurka auzi-bide errekurtsioa aurkeztu zuenak, Ansoalderi adjudikatu zitzaion kontratua berari eman ez izanagatik.

Kostuari buruz gogoratu behar da baita ere, Beasaingo kasuan erakusketa aretoa dagoela eta hori aurrera eramateko pertsonala behar dela.

Garbiñe Zurutuza andreak proposatu du, 5.000 € izan ordez, 10.000 € izatea, hau da, *“gehienez ere, lizitazio-prezioarekiko 10.000 €ko jaitziera egin ahal izango da: 50 puntu”*.

Beraz, ondorengo proposamena egin da:

Lehenik. Usurbe Antzokia eta erakusketa-aretoa kudeaketa kontratatzeke eta antzoki horretarako 3D/2D sistemarekin proiektio digitalerako ekipamenduaren hornidura eta instalazioa egiteko baldintza administratiboa onartzea, pleguari zineko ondasunen inbentarioa gehituz eta lizitazio prezioaren jaitiera 10.000 € bitarte aurreikusiz.

Bigarren. Esandakoa kontratatzeke deialdia publikoa egitea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, prozedura irekiaren bitartez, Usurbe Antzokia eta erakusketa-aretoa kudeaketa kontratatzeke eta antzoki horretarako 3D/2D sistemarekin proiektio digitalerako ekipamenduaren hornidura eta instalazioa egiteko, horretarako baldintza administratibo onartzuz:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: 115.000,00 € + gehi BEZri dagokiona.

4.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoaren pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

5.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren azaltzen dena.

6.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 20 egunetan.

7.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
- Jardueren memoria: 20 puntu.
- Hobekuntzak: 10 puntu.

- Digitalizazioa: 20 puntu.

8.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

9.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honako hau aurkeztu da.

Aitor Aldasoro jaunak galdetu du ea nola dauden, MUNDU MIRA eta ASTAZALDIren kontratuak, hain zuzen ere, komunikazio eta aholkularitza urbanístiko zerbitzuen kontratuak, jakin duelako zerbitzu horiek fakturatu egiten direla baina euskarri legalik gabe.

Alkatea jaunak (BILDU): “Baldintza pleguak prestatzen ari dira. Kontratazioa nola egin aztertzen ari gara. Dena dela esan gu etorri baino lehen, udal aldizkaria kontraturik gabe egiten zela eta zinea ere egoera berdinean zegoela. Baldintza pleguak egingo dira.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.